Epitelio hondoratu eta sintziala. Geruza 2


- Kanpo geruza: Nukelorik ez
- Barne geruza : perikarionak

3. TREMATODA KLASEA


- Digenea subklasea




Clonorchis sinensis



Mirazidioa




Erredia




Zerkaria



4. C/ZESTODA KLASEA




Proglottide heldua




Proglottide ernaria



8.gaia. METAZOO TRIBLASTIKO PSEUDOZELOMATUAK. NEMATODOAK



ECDYSOZOA taldekoek kutikula mudatzen dute hazi ahala.




8.1. NEMATODA FILUMA

- Triblastikoak
- Simetria bilateral
- Pseudozelomatuak
- Segmentaziorik ez
- Liseri hodi osoa, faringe muskularra, aho piezak simetria erradiala
- Epidermis sintzitala
- Kutikula eta mudak (4+ heldua)
- Ez zirkulazio eta ez arnas aparatirik
- Soilik muskulu longitudinalak
- >25.000 spp. Itsastar, urtar eta lehortar. Bizitza askeko zein bizkarroi






INVERTEBRATES 3e, Chapter 18 Opener
© 2016 Sinauer Associates, Inc.


Nematoda filuma



Nematoda filuma




Hickman et al.



8.2. GAIKOTASUNAK ERAGITEN DITUZTENAK:


- Askaria: *Ascaris* sp. *Ascaris lumbricoides*
- Trikinosia: *Trichinella* sp.
- Enterobiosia edo Oxiuriasia: *Enterobius* sp.
- Anisakisa: *Anisakis* sp.
- Filariasia: Filariasia Elenfantiasia
- Loa loa: Filiasi subkutanea

Nematoda filuma




Nematodo espeziak habitatekiko


Lurzoruko nematodoen elikadura




Animalia filogeniaren sintesi klasikoa



Animalia filogeniaren sintesi berria, Halanych 2004



Lophotrochozoa superfiluma




9.gaia. Zelomatu protostomatuak. Anelidoak, Moluskuak eta Artropodoak.

9.1. ANNELIDA FILUMA

Lophotrochozoa superfilumaren barnean dago annelida filuma (L. annelus, eraztun txiki+ ida, pl. atzizki)

Aneliden filum barnean hauek azaltzen dira:

- Class Polychaeta
- Class Oligochaeta
- Class Hirudinea
- Phylum Echiura
- Phylum Sipuncula



Oso fosil gutxi daude (ibilbideak, hodiak eta zati kitinotsuak), baina oso talde antzinakoa dirudi.


16.000-17.000 espezie daude deskribatuta baina baliteke 20.000-21.000 inguru egotea.

FILUMAREN EZAUGARRIAK






- Triblastikoak
- S. Bilateralak
- Zelomatuak
- Metameria nabarmena Homo(>hetero)nomoa.
- Epitelio + geruza muskular bi
- Liseri hodi osoa.
- Zeloma nabaria hainbat taldeetan
- Sistema zirkulatorio itxia
- Zerebroa, nerbio erastun periesofagikoa + nerbio gongoil eta kordoi bentrala
- Keta kitinotsuak
- Metanefridioak
- Bizimodu ibiltari eta sesila

EREDU BASIKOA


- Aurreko bi segmentuak
- Metameroak
- Atzeko segmentua



Anelidoen soin-eredua




ANNELIDA filuma




9.1.1. Annelida klaseak

1. POLIKETOAK (Polychaeta klasea)

- Keto → ketak dituzte
- Animalia itsastarrak dira eta bizimodu askea edo sedentarioa izan dezakete. Trokofora larba dute, hortaz ziklo ez zuzena.
- Ketaz inguratutako parapodioak dituzte, honi esker mugimendua izatea lortu dute. Bi bizi-modu mota desberdin daitezke:
 - Ibiltariak: harrapariak direnak faringearekin parapodio izeneko luzakin pareta dute lakaineko eta hauen muturretan keta edo zeta moduan ezagun diren zurda antzeko egitura firukarak gorputzeko mugimendu lateralen bidez ibiltzerakoan marruskadura emendatu eta aurrera egiteko
 - Sedentarioak: tutu batean, hau da, babesleku batean bizi dira hanean murgildurik eta elikagaia iragazleak izaten dituzte, hori dela eta asko bilateral izatetik simetria erradial batera jo dute. Eurek indusitako zuloetan bizi dira bertatik mugitu barik.



- Batzuk gainera kaltzio karbonatozko babeslekua egin dezakete, tubikola izenez ezagun dira; muskuiluak jaten ditugunean askotan hauen maskorraren gainean dauden kostra zuri horiek dira esaterako.
- Bizi zikloak: Ez zuzen primarioak eta zuzenak




Metameriaren garapena →




2. OLIGOKETOAK (Oligochaeta klasea)

- Lur-zizareak
- 10.000 sp.
- Urtar eta lurtarrak



- **Kliteloak:** Egitura guruintsua da kopula unean, hermafroditak dira, kapulu proteikoa sortzen duena arrautzak bilduz eta bertan gara daitezten lur zizare lurtarren kasuan gazte egoera arte (ziklo zuzena sortzeko aukera ematen du honek) arrautzak lehortetik babesten bait ditu.

- **Metanefridioak** (Guruin irazitaila, Normalean inbutu ziliatu edo nefrostoma bat da, barrunbe orokorrera edo zelomara zabaltzen dena eta hodi bati (nefruktuari) konektatzen diona, hodi hori glandurizatua, hedatua, besikulatua, etab., eta, oro har, animaliaaren kanpoaldean geratzen da nefroporo baten bidez.) Iraizketa burutzeko metanefridio metamerikoa agertzen da lakain bakoitzean.





Metanefridioak

Laburbilduz; ekun kloragogenoa (peritorenoak liseri aparatua inguratu), kliteloak ugalketan parte hartu mukia jariatuz (kapula bat sortzen zaie bertan), kanpo ernalkuntza, bizi ziklo zuzen primarioa, udan estibazioa eta hummusa edo lurzorua eratzen dute.



3. HIRUDINEA KLASEA

- Hirudinea; izainak
- Gehienak urtarrak (geza); gutxi lurta eta itsastarrak
- Aho kopadura dute harrapakinari heldu eta listuan antikoagulatuzaileak dituzte odol xurgapena errazteko. Aspalditik erabili izan dira medikuntzan ubetu eta odol-batuak kentzeko ahalmen horri esker.
- Kliteloa udan izaten dute soilik.
- Dieta eta bizimodurako bentosa batzuk ditu.




9.2. SIPUNKULIDA “filuma”

- 250 sp. Gutxigorabehera
- Trokofora larba
- Itsastarrak
- Poliketoen azpi talde bat?



9.3. EKIURIDOAK “filuma”

- 150 sp. Gutxigorabehera
- Trokofora larba
- Itsastarrak
- Egun, poliketoen subklase bat



9.4. MOLLUSCA FILUMa


(L. molluscus: bigun)

Zelomatuak Protostomatuak Lofotrokozooak

Itsasoan eboluzionatu zuten eta egun gehienak bertan bizi; hainbat gastropodo eta bivalbio ur gezetan eta gastropodo batzuk lurterak


EZAUGARRIAK:

- Triblastiko, bilateral, zelomatu protostomio
- Zeloma (perikardio-gonada-iraiz eremua) + hemozelea
- Tegumentu biluzi eta ziliatua + maskorra
- Burua errai masa eta oina
- Erradula + hepatopankreasa
- Dioiko edo hermafrodita (gutxi), ziklo ez zuzen eta zuzen primarioak
- Itsastar, urtar, lehortar
- 100 000 sp. Inguru. Aldakortasun handia.




9.4.1. Moluskuen soin plana-MOLUSKU ARBASOA:

- Oin muskularra
- Errai-barrunbea: liseri, zirkulazio, arnas, eta ugal-organoak
- Mantua: mantu barrunbea mugatu eta talde batzuetan maskorra jariatu



Erradula



9.4.2. Maskorra


Kitina (polisakaridoa) + konkiolina (proteina) + karbonato kaltzikoa

Mantuak jariatuta:

- **Periostrakoa:** geruza kanpokoena, proteikoa
- **Kanpo-geruza prismatikoa edo ostrakoa:** kaltzio karbonato ugari
- **Barne-geruza nakaratua (endostrakoa):** kaltzio karbonato + biopolimeroak = Nakarra

9.4.3. Moluskuen bizi-zikloak

- Arrautza-Trokofora-Gaztea.
- Arrautza-Trokofora-Beliger-Gaztea.
- Arrautza-Gaztea (zefalopodo, eta molusku lurtar eta ur gezekoak)






9.4.4. MOLUSKUEN SAILKAPENA (8 klase)

- Polyplacophora klasea → kitoiak
- Scaphopoda klasea → eskafopodoak
- Gastropoda klasea → barraskilo, bareak
- Bivalvia klasea → muskuilu, txirlak
- Cephalopoda klasea → olagarro, txibiak


1. POLYPLACOPHORA KLASEA

- Itsastarrak, 900-1000 sp
- Zortzi plakez osaturiko maskorra



2. SCAPHOPODA KLASEA

- Itsastarrak, marearteko eremutik behera
- Adar itxurako maskorra
- Mantuak erraiak bildu eta fusionatua




3. GASTROPODA KLASEA

- Barraskiloak, bareak, lapak, itsas-belarriak
- Klase nagusia da: 60.000- 80.000
- Itsastar, ur gezetan, lurtearrak

60.000-80.000 sp


ur gezetan, lurtearrak



TORTSIO PROZESUA:

Simetría bilateral dute, baina tortsio prozesua jasaten dute ontogenian beliger fasean

Maskorraren kiribiltzearekiko independentea




KIRIBILTZE PROZESUA

1. Gastropodo goiztiarrek maskor planospirala zuten, kiribil berria bilduz
2. Maskor konispirala, kiribil berria aurrekoaren parean
3. Maskorraren ardatza okertzen da pisuaren banaketa hoberako


Maskorra pieza bakarraz eratua – unibalbioak – eta kiribildua ala ez egon daiteke.

- Erpinean dago kiribil zaharrena eta txikiena
- Ezker edo eskuin kiribildu, genetikoki determinatua.

Copyright © The McGraw-Hill Companies, Inc. Permission required for reproduction or display.



Copyright © The McGraw-Hill Companies, Inc. Permission required for reproduction or display.



Erpina (apex)

Espira (spire)


Kolumela (columella)

Kiribila (whorl)


Barraskilo arrunta → Pulmonata subklasea

4. BIVALBIA KLASEA

- Txirla, muskuilu, muxila, berberetxo, ostrak, nabajak, beirak
- 30 000 sp.
- Itsastar eta ur gezetan. Gehienak sesil iragazleak
- Ez buru ezta erradularik (ezta odontofororik)




- Lateralki estututa daude eta kisku biak ligamentu batez daude lotuak, giltzadura (unboa) kuskuek hortzak dituzte txarnela izenekoak



Unboa maskorraren alde zaharrena da, hazkuntza kontzentrikoki emanez honen inguruan



- Mantuaren alde bat modifikatua dago sarrera- eta irteera-sifoiak eratuz.
- Mukiaren bidez esekiduran dauden partikulak harrapatu eta ahoratu.
- Dioikoak orohar
- Zikloa: Trokofora, beliger eta gaztea
 - Ur gezetako muskuiluetan arrautzak glokidio deritzon larban garatu (beliger espezializatua), zeina arrainen bizkarroia den



5. CEPHALOPODA KLASEA

- Olagarro, txibi, txipiroi, nautilus
- 900 sp
- Itsastar karniboroak
- Kanpo maskorra (nautilus)
- Barne maskor eraldatua
- Oina eraldatua: garroak eta sifoia

Zefalopodoen eboluzioa molusku arbasotik:



- Fosilak Kambriarrekoak (duela 570 mu).
 - Forma goiztiarrek kanpo-maskor konikoa zuten
 - Berantiarrek maskor kiribildua (egungo Nautilus-aren antzera)
- Begi konplexuak: kornea, kristalino, eta erretina

9.5. ARTHROPODA FILUMA

Grekeraz: Arthron: giltzadura + podos, hanka

Animali espezieen 2/3 artropodoak dira. Artropodoak dira Animali Erreinu osoko talde dibertso eta arrakastasuna bai espezie kopuru eta dibertsitateari dagokionez baina baita duten banaketa geografiko eta konkistatu ahal izan dituzte ingurune, ekosistema zein habitatei dagokionez.


9.5.1. EZAUGARRI NAGUSIAK:

- Multizelularrak
- Bilaterioak
- Triblastikoak
- Zelomatuak (protostomatuak)
- Segmentatuak

Dibertsitatea eta arrakastaren gakoa: **SEGMENTAZIOA** (metameria heteronomoa) **EXOSKELETO GOGORRA** (kitinazkoa) eta **APENDIZE GILTZATUAK**

9.5.2. ARTROPODIZAZIOA → ARTROPODOEN BAUPLANA

Arazo funtzional eta estruktural jakinen ondorioz artropodoek jasandako adaptazio sorta




Soin biguneko arbaso metamerikoa (anelidoen antzekoa: zilindriko eta metamerizatu)

Eskeloto hidrostatikoa



Amankomunean

1. Kanpo lakainketa.
2. Apendizeen muskuluak segmentuak.
3. Nerb sist. Metamerikoa zerebro dorsalarekin.
4. Segmentazio espirala, protostomia, zeloma.




Artropodoek

1. Lakain kopuru finkoa
2. Eskuarki barne septurik ez.
3. Tagmatizazio nabaria.
4. Zeloma murriztua, hemozele zabala.
5. Zirk. sistema irekia
6. Gorputz muskuluen murrizketa eta espezializaioa
7. Arnas apartua berriak (trakeak, liburu birrikak).
8. Exoeskelotoa
9. Apendize giltzatuak
10. Organu sentzorialen perfektionamendua. Begi konposatuak.
11. Ziliorik ez.
12. Hainbat kasuetan metamorfosia.



EXOESKELETOA:

- Kutikula zalua → esklerotizazioa → kutikula gogorra, malgua
- Esklerotizazioa: eskleritoetan soilik, mintzetan ez



Exoeskeleto moldakorra:






1. Soin-eredu konstantea
2. Muskuluen euskarri puntua
3. Hanken garapena → oina sustratutik altxatu → Mugimenduen efizientzia (palanka-eredukoak)

Hazkuntza jarraia
mugatu-
EKDISIA.

Espezializatorako aurreadaptazioa





Armiarma eta **exubia**
aldatuberria





Lokomozio eficienteagoa

- Segmentu bakoitzak APENDIZE GILTZATU para
- Funtzio anitzak betetzeko ahalmena: kinaden-harrera, elikagaien prozesamendua, ibili, igeri...



KRUSTAZEZEN APENDIZE BIRRAMIOAK



APENDIZE UNIRRAMIOAK



APENDIZE GILTZATUAK

Apendize bakoitza atal esklerotizatuz osotua → podomero (edo artexu)

- Podomero bakoitza aurreko eta hurrengoari lotuta mintzen bidez.

Batzutan podomeroak sekundarioki banatu longitudinalki podito izena hartuz, hauek muskulu intrintsekoak dituzte beraien luzeran baina bertan txertatu gabe, ez dute ondorioz berezko mugimendurako ahalmenik.

Apendize lokomotoreen kopuru totala murriztu egin da sarritan eboluzioan. Abantaila fisiko-mekaniko-lokomotore-energetikoak >> intsektuetan 3 pare lokomotore




- A- krustazeoen apendize birramo orokorra
- B- krustazeoen apendize birramo filopodiala
- C- krustazeoen apendize uniramio (estenopodia edo hanka lekuzaldatzailea)
- D- trilobiteen apendize toraziko birramoa
- E- eskorpioien apendize uniramioa (hanka)
- F- matxinsaltoen apendize uniramioa (hanka)

APENDIZE BIRRAMIOA

Forma urtarretan (trilobite eta krustazeoetan). Telopodioak bi adarkadura dituenean:

- Exopodia: Funtzio igerilaria eta arnasketa>> luzakin filiformeak
- Endopodia: Lokomozio ibiltari funtzioa. Podomero kopuru oso aldakorra, baina orohar bost.



Apendize birramioa:
trilobite eta
krustazeoetan

APENDIZE UNIRRAMIOA


Hexapodo, miriapodoetan, araknidoetan. Telopodioak ardatz bakarra.

Jatorriz krustazeo birramioen ahaidea zen arbasotik eratorria >> beraz sekundarioki unirramioa

Artropodo lehortarretan


Normalean 5 podomero:

- Podomero batez osaturiko protopodia: koxa eta beste 4 telopodioari dagokionak
- Trokanterra
- Femurra
- Tibia
- Tartsoa (batzutan pretartsoa agertu)




Apendize unirramioa:
hexapodo, miriapodo eta
hainbat krustazeotan

**Artropodoen
apendizeek
homologia seriataua
erakusten dute**



Apendizeen morfologia desberdinak **funtzioen** arabera (adibidez: ibai-karramarroarenak)



APENDIZE BUKALAK

Artropodo talde bakoitzak modelo bat:


- Kelizeroak eta pedipalpoak kelizeratuetan
- Baraila, maxila eta maxilipedoak krustazeoetan
- Baraila, maxilak eta labium (ezpaina) intsektuetan
- Baraila eta maxilak miriapodoetan.
- Intsektuetan bereziki, adaptazio ugari jasan, funtzio desberdinak betez.

Segmentuak **TAGMA** izeneko eskualde espezializatutan fusionatuta daude.

TAGMATIZAZIO PROZESUA

Oro har, 3 talde funtzional:

1. Zefalikoak: janari-eskuraketa, ingestioa, zeregin sensorialak, nerbio-kontrola
2. Torazikoak: lokomozioa
3. Abdomena: erraiak, funtzio somatikoak, gonadak




Tagmatizazio-ereduak

Taldez-talde tagma kopuru, konposizioa, funtzio eta nomenklatura desberdina


	Tagmak	Izenak
Trilobiteak	3	Burua (zefalona), enborra eta pigidioa
Kelizeratuak	2	Prosoma eta opistosoma (zefalotoraxa eta abdomena)
Krustazeoak: primitiboak modernoak	3	Zefalona, pereiona eta pleona (burua, toraxa eta abdomena)
	2	Zefalotoraxa eta abdomena
Miriapodoak	2	Burua eta enborra
Hexapodoak	3	Burua, toraxa eta abdomena

ZIRKULAZIO-APARATUA

- ZELOMA MURRIZTUA. Ontogenian zeloma-ganbara metameriko bikoitiak agertu baina birzurgatu organo eta ehunak emanez. Helduan, zeloma soilik nefridio, gonada eta gonoduktuen inguruan
- Oinarrizko egitura: HEMOZELEA Likidoz beteriko hutsunea, gorputz-barrunbe modura aritzen dena. Barne-organook inguratu eta garraiorako erabiltzen dituen hainbat likido ditu.






Zeloma ⇌ Hemozelea



ESKREZIO-APARATUA

- Metanefridioetatik eratorritako guruinak: antena-guruinak, koxaguruin edo maxilarrak (artropodo guztietan).
- Artropodo lehortarretan gainera Malpighi tubuluak daude (Araknido eta Intsektuak).
- Hestearekin komunikatuta, hemen birxurgapena emanez.
- Azido urikoa egoera solidoan kanporatzeko aukera (ur aurrezpen maximoa).





9.5.1. SUBPHYLUMAK:

– Chelicerata subphyluma

Subfilum honetako kideek aho pieza (apendizak dira ere) bereizgarriak dituzte. Bi pare dira lehenengoak kelizeroak dira (taldeari izena ematen diotenak) eta bigarrenak pedipalpo izena dute

- Merostomata klasea
 - Xifosuridoak (Xifosuridae ordena: Ferra-karramarroa)
 - Euripteridoak

- Arachnida klasea
 - 100.000 sp
 - Armiarma, eskorpioi, akain, opiloi, akaro
 - Ez dute antenarik eta orohar bi tagma dituzte zefalotoraxa (burua eta toraxa fusionatuta daude) eta abdomina.

- Scorpiones ordena
 - Eskorpioak biltzen dira bertan, aski ezagun direnak. Eure kelizero zein pedipalpoek matxarda (pintza) itxura dute, nahiz eta bigarrenak diren ikuskorrakoak tamaina handiagatik. Harrapariak dira eta horretarako azken metameroa, teltsen izeneko, ezten pozointsu bilakatu da. Teltsona ez da apendizetat hartzen eta bai metamerotzat.

○ **Aranae ordena**

- Armiarmak. harrapariak guztiak. Hortarako kelizeroek letagin itxura dute eta pedipalpoek ukimenerako eta elikagaien manipulaziorako balio dute. Lau hanka pare dituzte. Kelizeroekin entzimez osaturiko listua injektatzen diote harrapakinari eta hauek harrapakina liseritzen hasten dira, kanpo liseriketa da beraz, gerora armiarmak harrapakinaren ehun liserituak "edango" ditu.
- Bereizgarria den moldapen bat dute, zeta lerro deritzena eta airearekin kontaktuan gogortzen den proteina berezia ekoizten dutenak, zeta. Honekin sarea eratzen dute harrapakinak harrapatzeko,



Guruina	Erabilera
Anpulazeo nagusia	Amaraunaren kanpoaldea eta euskarrirako. Baita sorospenezokarako ere.
Anpulazeo txikia	Amarauna egin bitarteko behin behineko egiturak sortzeko
Falgeliformea	Amaraun lerrok lotzeko zeta espirala
Tubuliformea	Ooteka egiteko
Aziniformea	Harrapakinak bildu eta eusteko. Arrak esperma biltzeko. Dekoraziorako
Agregatua	Itsaskorra
Piriformea	Hari desberdinak elkartu eta euskarrietara lotzeko

Armiarmek zeta mota bat baino gehiago ekoitz ditzakete (guruin desberdinetan) funtzio desberdinak betetzeko

Zetaren erabilera: Harrapakinak harrapatu eta inmobilizatu, ugalketa, dispertsioa, elikagaia, habia eraiki eta barrutik estali, gida-hariak, jauzi-hariak, alarma-hariak eta feromona-bidezidorrak.

— **Myriapoda subphyluma**

Metamero kopurua beharrean gorputza luzatu egin dute ordea. Burua eta enborra dutelarik, bigarreanean metamero kopurua emendatuz, hortiz datorkie izena "mila hanka"

- Chilopoda klasea
 - 8.000 sp
 - Ehunzangoak
- Diplopoda klasea
 - 10.000 sp
 - Milazangoak (Detritiboro eta belarjaleak)



— **Crustacea subphyluma**

Talde oso dibertsoa . Urtarrak guztiak eta brankien bidez arnasten dute beraz.


Apendizeei dagokienez hauek bi adar dituzte horregatik birramio deritze (bi rama alegia).

- Maxillopoda klasea
 - 26.000 sp.
 - Lanperna eta kopepodoak
- Malacostraca klasea → Decapoda ordena (Karramarro, izkira, otarrain, lanpernak..)
 - 22.000 sp.
 - Zefalotoraxa eta abdomina dituzte.
 - Birramioak dira: adibidez, toraxean arnasketa eta lokomozioa



– **Hexapoda subphyluma**

- ENTOGNATHA klasea: Aho-piezen oinarria kapsula zefalikoaren baitan
- INSECTA klasea: INTSEKTUAK. Aho-piezen oinarria burutik kanpo
 - 1.000.000 gora sp
 - Animali espezieen > %90





INSECTA KLASEA: Artropodo dibertso eta ugarienak (26 orden)

Tagmatizazioa: 3 tagma

- BURUA → begi konposatuak, antena pare bat, 3 ozelo, aho-piezak (barail eta maxilak). Aho piezen oinarria burutik kanpo
- TORAXA → 3 segmentu, bakoitza hanka-pare batekin, azken biak hego-pare banarekin.
- ABDOMENA → 9-11 segmentu


Ornogabe hegalaria bakarrak dira. Intsektuen hegoak meso- eta meta-toraxeko kutikularen luzakinetatik eratorriak. Gehienak 2 hego-pare dituzte:

- APTERIGOTOAK: Primarioki hegorik ez
- PTERIGOTOAK: Primarioki hegodunak
- Arkakusoak: Sekundarioki hegorik ez







HANKA MOTAK




HEGO MOTAK





TXIMELETA



LABEZOMORROA



ZIMITZA (HEMIELITROA)



APENDIZE TAKTIKAK: Batez ere antenei dagokie, araknido batzuetan funtzio hau lehen hanka pareak burutu, antena itxurakoa delarik

METAMORFOSIA

Lehia intraespezifikoa murrizten da

Taldeak ziklo ez-zuzena du, hau da, larba bat agertzen da zikloan zehar. Larba honek metamorfosi deritzon aldaketa prozesu sakon baten bidez, zeinari esker zeuden hainbat organo eta egitura endekatu eta berriak sortuko diren, heldua edo imagoa emango du. Metamorfosi une hau hain prozesu bikain eta bitxia da intsektuek pupa edo krisalida deritzon egoera latentean gertatzen dela. Hala ere prozesu hau ez da berdina intsektu guztietan eta hartara bi eredu beha daitezke:

1. Metamorfosi hemimetaboloa:

- Hauetan larba edo fase preimaginala hain da helduarekiko antzeko (helduaren miniatura bat da) ninfa esaten zaiola.
 - Paurometaboloak: habitat bera (Adibidez, matxinsalto eta kilkerak)
 - Heterometaboloak: ninfek eta helduek habitat desberdinak (Burruntziak, gainera larba urtarra eta heldua lehortarra da)

2. Metamorfosi holometaboloa

Larva: mugikorra eta fagoa (beldarra lepidopteroetan)

Pupa: mugiezina eta afagoa

Imagoa: Heldua


- Aldaketa osoa inplikatzan duen aldaera da. Pupa fasetik pasatzen dira, hemimetaboloak ez bezala. Konplexutasun maximoa eskatzen du, histolisi- eta histogenesi-fenomenoak. Helduaren ehun berriak zelula diferentziatugabeetatik eratorri → disko imaginaletik

TRAKEA SISTEMA




Intsektuena talde lehortarra da, hainbat aurreadaptazio zituzten bizimodu berri honi aurre egiteko, kutikulak eskeintzen zien isolamendu hidrikoa berebizikoa izan zelarik. Baina, alde aurretik zeuden artropodoak urtarrak izanda eta brankien bidez arnasten bazuten, nola lortu zuten intsektuek arnastea? ba, trakea sistema baten bidez (armiarmek ere, beste artropodo lurtarrak, antzeko egitura dute).

Trakeak intsektuen barnetik zabaltzen den hodi sistema batez eratuta daude, kanpoarekin espirakulu izeneko irekiune baten bidez konektatuta eta hemendik sartuko da airea, hodiak gero diametro txikiago izango dute adarkatu ahala trakeola deritzeneraino heldu arte, hauek hemolinfarekin daude kontaktuan noski eta hemen gertatuko da gasen elkartrukea. Bada, orain 40 milioi urte, Karbonifero garaian, bazeuden 70 cmko hegala zabalera zuten odonatuak, baina gaur egun ez da hau posible, airea presio handiagoz sartzen zelako ziren hain handiak (oxigeno partziala %20)

Trakea-sistema



Trakea-sistema





Solomon et al.

Thysanura (Zygentoma) ordena (320 sp.)

Zilar-arrain

Apterigotoak. Aho-pieza murtxikatzaileak. 2-3 isats. Zelulosa jan (liburu, egurra).



Solomon et al.

Odonata ordena (5.000 sp.). Burruntziak.

Bi hego-pare luze mintzakarak. Aho-pieza murtxikatzaileak. Begi konposatu handiak. Harrapariak.



Solomon et al.

Orthoptera ordena (20.000 sp.)

Matxinsalto, kilker, langostak.

Aurreko hego-parea larrukara (sing. **tegmen**, pl. **tegmina**), atzekoak mintzakarak. Aho-pieza murtxikatzaileak. Herbiboroak batez ere. Hankak jauzirako moldatuta.



Solomon et al.

Diktiptera ordena (3.700 sp.)

Labezomorroak. Marisorginak (Mantis).

Aurreko hego-parea larrukara, atzekoak mintzakarak. Sekundarioki hegirik gabe. Aho-pieza murtxikatzaileak. Omniboroak edo harrapariak. Hanka kurtsorialak.



Solomon et al.

Isoptera ordena (2.000 sp.). Termitak.

Hego-pare bi edo bat ere ez, forma ugalkorrek hegoak galdu kopulatu ondoren. Aho-pieza murtxikatzaileak. Intsektu sozialak. Egurra jaten dute.



Solomon et al.

Anoplura ordena (500 sp.). Zorriak.

Sekundarioki apteroak. Aho-pieza zurrupatzaile eta murtxikatzaileak. Ugaztunen ektobizkarroiak.



Solomon et al.

Hemiptera ordena (35.000 sp.). Zimitzak.

Aurreko hegoak argiagoak amaieran (**hemielitroak**). Aho-pieza zizatzaile eta zurrupatzaileak. Gehienak herbiboroak, batzuk ektobizkarroiak.



Solomon et al.

Homoptera ordena (33.000 sp.). Afidoak.

Bi hego-pare mintzakara. Aho-pieza zizatzaile eta zurrupatzaileak. Herbiboroak.



Solomon et al.

Lepidoptera ordena (120.000 sp.). Tximeleta, sitsak

Bi hego-pare mintzakara, koloredun ezkatekin. Aho-pieza zurrupatzaileak (**espiritronpa**). Larbak beldar itxura eta herbiboroak. Helduak loreen nektarraz elikatu.



Solomon et al.

Diptera ordena (150.000 sp.). Euliak, eltxoak.

Hego-pare bi. Atzeko parearen oreka mantentzeko moldatua, (**halterioak**). Aho-pieza zurrupatzaileak (batzuk zizatzaile).



Solomon et al.

Siphonaptera ordena (1.750 sp.). Arkakusoak.

Sekundarioki apteroak. Aho-pieza zizatzaile eta zurrupatzaileak. Hankak heltzeko eta jauzirako. Ugaztunen zein hegaztien bizkarroiak.



Solomon et al.

Coleoptera ordena (>500.000 sp.). Kakalardoak, gurgurioak.

Aurre-hegoak gogorak (**elitroak**), atzekoak mintzakarak (batzutan ez daude). Aho-pieza murtxikatzaileak. Orohar herbiboroak. Batzuk urtarak.



Solomon et al.

Hymenoptera ordena (130.000 sp.). Erle, inurri, liztorrak


Orohar bi hego-pare mintzakara. Aho-pieza murtxikatzaileak, edo nektarra xurgatzeko. Asko sozialak.

11.gaia KORDATUAK


FILO KORDATUAK:

- Subfilo tunikatuak edo urokordatuak (aszidiak)
- Subfilo zefalokordatuak (anfioxoak)
- Subfilo ornodunak (kraneatuak)
 - o Superklase agnatuak (mixinak, lanproiak)
 - o Superklase gnatostomatuak

- Kondrikzioak klasea
- Osteiktioak klasea
- Anfibioak klasea
- Narrastiak klasea
- Hegaztiak klasea
- Ugaztunak klasea




11.1 KORDATUEN EZAUGARRI BEREIZGARRIAK






- Notokorda
- Arraildura faringeoak
- Hodi neurala
- Isats postanala



Kordatu guztietan, maila enbrionarioan besterik ez bada ere.



11.2. UROKORDATUAK EDO TUNIKATUAK SUBFILUMA





Aszidien ziklo biologikoa




Aszidien ziklo biologikoa

11.3. ZEFALOKORDATUAK




Anchiostoma lanceolatum

- Ornodunen garapenean → endoeskeleto bizia (ornoak, garezurra, kaxa torazikoa)
- Faringe muskular oso baskularizatua, bihotz bentrala eta arku aortikoak
- Nerbio sistema garatua
- Zefalizazio nabarmena
- Zentzumen garatuak (begiak, entzumena, dastamena eta usamein kimiohartzaileak)
- Soin-adar pareak



Zapaburu-larbatik abiatuta ornodunen eboluzio hipotetikoak (Garnstang hipotesia)



11.4. ORNODUNAK

Ornoak: bizkarrezurra osatzen duten hezur seriatuak


69.276 espezie


Ornodunek endoeskeletoa dute, kartilago edo hezurrezkoa.

- Guztiek dute krania zerebroa babesteko.
- la guztiek ornoak dituzte bizkar muina babesteko
- Egitura biek muskuluen txertapenerako

Subphylum Vertebrata = Craniata

- Kraniatuak, kraneoa duten kordatuak
- Kranioaren agerpenak elikadura eta bizimodu berria zabaldu kordatuei: harraparitza aktiboa





11.4.1.

AGNATHA SUPERKLASEA EDO INFRAFILUMA

Ezkutu dermikodun eta barailik gabeko OSTRAKODERMOAK.


Elikatze-estrategian muga > muga ekologikoa

Agnatoak:

- Ostrakodermoak → fosilak
- Mixina eta lanproiak → forma bizidunak

1. MYXINI klasea: Mixinak

- 70 sp. Itsastarrak; sarraskijaleak, edo ia
- Ez hegats bikoitirik, ez dortsalik
- Hezurrik ez, barne-eskeleto kartilaginotsua > notokorda iraunkorra
- Epidermis biluzia, muki-guruine z hornitua > ezkatarik ez –5-16 brankia-pare > poro brankialak (kopuru aldakorra)
- Nerbio kordoi dortsala, zerebroa kartilagoz bildua (ez guztiz)
- Ganbara bidun bihotza + bihotz lagungarriak
- Isosmotikoa itsaso urekin
- Begi endekatuak, dastamen, usaimen + entzumen. Kanale zirkular bakarra.
- Sexua banatuak. Ale bakoitzak gonada biak, soilik bat funtzionala. Ziklo zuzena
- Ahoa: bi hortz-lerro kanporagarri mihian > harrapakinei hozka zatiak kentzeko




2. PETROMYZONTIDA klasea

LANPROIAK (lamprea; lamprey)


38 spp. itsastar nahiz dultzikolak → Anadromoak

- Bizkarroiak (larbak iragazleak)
- Soin mehea, aingirakara, eta azal bilutsa > ezkatarik ez
- Hegats bakoiti bat edo bi > soinadar bikoitirik ez
- Hezurrik ez > eskeleto kartilaginotsua + notokorda iraunkorra
- 6 brankia pare, bakoitza bere irekigunearekin
- Nerbio korda dorsala + zerebroa + zerebeloa
- Digestio hodian toledura espiralak
- Oso larba fase luze
- Ahoan kopadura sendoa --> odontoideak

Ammozeite larba



heldua



11.4.2.

GNATOSTOMATHA SUPERKLASEA EDO INFRAFILUMA



GNATOSTOMATUAK, baraildun ornodunak.


Barailak 1. eta 2. arku brankialetatik eratorriak: Agerpenaren arrazoiak: brankiei lagungarri gisa, ur-fluxua handitzeko hazi ziren, metabolismo gero eta azkarragoa asetzeko.



MONOFILETIKOA


- Hiomandibularra
- Palatokuadrata
- Meckel-en kartilagoa






1. PLAKODERMOAK:

- Gnathostomatuen adar goiztiarra > denak fosilak
- Siluriarraren azkenaldetik (416 mya) Karboniferora (ca. 340 mya)
- Endokranioa ondo osifikatu
- Ostrakodermoek baino bizimodu aktiboagoa > harrapakariak
- Baliagai berrien ustiaketa: trofikoak, ugaltokiak, babeslekua...
- Habitat berrien kolonizazioa > txoko ekologiko berriak




B. Dinichthys





2. CHONDRICHTHYES klasea

- Kondriktiekak = "kartilagozko arraina"
- Ordoviziarrean; ezkata plakoideak
- Bi erradiazio: Devoniarrean (ca. 380 mya) eta Jurasikoan (170 mya)
- 1100 sp.; itsastarrak (25 sp dultzikola)
- Tartean egungo ornodunik handienetakoak (bale-marrazoak 15 m)
- Eskueto kartilaginotsua, kaltzioz hornitua, hezurrik gabea eta sekundarioa:
 - o Ezkata plakoideoak → hezur-antzeko elementuak



- Soin fusiformea (hipotrematuetan eraldatu)
- Hegats kaudal heterozerkoa
- Hegats bikoiti pectoral eta pelbiarrak, hegats dorsal bi eta anal bat > gehienetan triangeluarrak
- Ezkata plakoideoak
- Hestean balbula espirala. Askotan gantzan oparo den gibela
- Zirkulatio itxia sinplea
- 5-7 brankia pare, arraidura propioak
- Odola isosmotiko edo hiperosmotikoa (Urea)
- Barne ernalketa, obiparo / obobibiparo
- Lorenzini anpuilak buruan + neuromastoak
- Hortzak: ezkata plakoideo eraldatu
- Elasmobranchiotan gehienetan ebakitzeko moldatuak → ertz zorrotza, zerratua...
- Polifiodontoak → aldaketa oso azkarra → marrazo gaztetan astebetean
- Holozefalotan plaka murtxikatzailak




Lorezini anpuilak:

- Eremu elektriko ahula detektatu
- Agian, temperatura, gazitasuna eta presio hidraulikoa baita ere

Neuromastoak: lerro lateralean


- Inguruko uraren asaldura



Endoskeleto kartilaginotsua

Kranio-kutxa handia, baina elementuen arteko jostura ahula



Notokorda iraunkorra forma goiztiarretan > orno kartilaginotsuz ordezkaturia forma modernotan; Holozefalotan ornorik ez



Kondriktia

Osteiktia

Garezur Zinetikoak



- 5-7 brankia pare > septu interbrankialak > arraidura propioak
- Jatorrizko 1. arraidura brankiala eraldaturia > ESPIRAKULUA
- Ez birikarik, ez gas-puxikarik > flotabilitatearen kontrolik ez > hondoratzeko joera
- Forma bentikoentzat ez da arazo > arraiak, baztangak...
- Igeriketarako lagungarri: **gantz lirainez betetako gibel handia, isats heterozerkoa, hegats pektoral bereziak...**

UGALKETA

- Sexuak bananduta > dioikoak
- Barne-ernalketa > akoplamendua gonopodioen laguntzaz
- Obiparo, obobiparo eta bibiparoak > larbarik ez
- Arrautzak estalki babestailerik sendotan bilduta
- Ernaldi oso luzea (telolezitoak!) > katuarrainak 2 urte! (5-11 hilabete)


ELASMOBRANKIOAK

2 soin-eredu:

1. forma lirain eta hidrodinamikoa marrazoetan; PLEUROTREMATUAK

2. zaplan eta zabaldua manta, arraietan HIPOTREMATUAK

Bi superorden nagusi, soin-ereduen arabera: pleurotrematuen superordena eta hipotrematuen superordena.



Elasmobranchioak:

Ikusi:

Ornoa

Notokorda iraunkorra

Hodi neurala

epindimarioarekin

MEGAPREDATZAILEAK → piramide trofikoaren erpinean

MIKROPREDATZAILEAK → harrapari bortitz espezializatuak > harrapakina osorik jan beharrean “zattia” kentzen diote

IRAGAZLEAK → marrazorik handienetarikoa > hainbat espezie

HIPOTREMATUAK

- Bentonikoak > Soina dortsobentralki zapaldua
- Hegats pektoralak oso garatuak eta aurrekaldetik buruari josita > “diskoa”
- Bizimodu bentonikorako moldapenak > begiak eta espirakulua alde dortsalera




3. OSTEICTHYES KLASEA:

“Hezurrezko arrainak” → hezurrezko barne-eskeletoa


Lehen dibertsifikazioa Devoniarrean

Egun arrakasta handia > 35.000 sp.



- Hezurrezko eskeletoa
- Orno ugari → notokorda partzialki iraunkorra edo ez
- Sahiets-hezurak → bentral eta dorsalak
- Hegatsetan erradio kartilaginotsu edo hezurrezkoak → lepidotrikoak
- Hegats kaudala homozerkoa → salbuespenak (forma goiztiarrak)
- Ahoa terminala, barailduna: hotz ugari
- Dibertsitate trofikoak: makropredatzaitatik hasi eta plaktonaz elikatzen direnetera
 - o Gehienak karniboroak

Garezur zinetikoak




GAS-PUXIKA:

- funtzio desberdinak: flotabilitatearen kontrola, arnasketa, hotsen anplifikazioa...
- Beti **liseri-hodiaren** ebaginazioa > baskularizatua edo ez



IGERI-PUXIKA:

- Fisostomoa → plesiomorfikoa → hodi pneumatikoaz eraendua
- Fisoklistoa → apomorfikoa → isolatua; gas-guruina eta sistema baskularraz eraendua



Puxika fisoklistoa:


- Puzteko: gas-guruinean az. laktikoa > odolaren pHa jaitsi > hemoglobinak O₂ askatu > gasak puxikara
- Gas-guruinean sare baskularra, pH azidoa bertan mantentzeko > bertatik odola gibelera > az. laktikoaren garbiketa
- Husteko: barne-presioak gora > balbula muskularra zabaldu > gasa obalora > bertatik odolera (pH normala) gas-presioaren eraginez



- Arnasketa brankiala → forma modernotan 4 brankia pare eta espirakulua itxia
- Zirkulatorio itxia, sistema sinplea.

Lokomozio-eredua:

- Soin-ardatzaren uhinezko mugimendu laterala: muskulatura axiala + hegats kaudala > bultzada nagusia + alboetaranzko bultzada
- Hegatsek > itzulipurdiko, gora-beherako eta alboetaranzko mugimenduak eragotzi > oreka




UGALKETA

Heterossexuala: Orohar dioikoak > sexuak bananduta

Sarri potentzialki hermafroditak > bi gonada pare > bakarra funtzionala

Protandrikoa

Protoginoa



Arrain **katadromoa**:
aingira

Arrain **anadromoa**:
izokina

Baita potamodromoak ere



OSTEIKTIEAK: Aniztasuna

- ACTINOPTERYGII subklasea
Aktinopterigioak → Hegats erradiodunekoak: Teleosteoak, 33.000 sp, osteiktie gehienak
- SARCOPTERYGII subklasea
Sarkopterigioak → Hegats txortenedunak; muskuluak hegatsetan > talde erreliktikoa > 8 sp. soilik egun > tetrapodoen arbaso

ACTINOPTERYGII subklasea

FORMA PLESIOMORFIKOETATIK → APOMORFIKOETARA

1. Hegatsetako erradioak: Bigunak (malakopterigioak) >>> gogorak (akantopterigioak)
2. Hegats pelbiarren kokapena: Abdominalak >>> torazikoak >>> jugularra
3. Ezkaten izaera: Zikloideoak >>> ktenoideoak
4. Igeri-puxika: Fisostomoa >>> Fisoklistoa

MALAKOPTERIGIOAK



Clupeiformes O.



Salmoniformes O.



Cipriniformes O.



Siluriformes O.

e.a.

AKANTOPTERIGIOAK



Escombriformes O.



Escorpeniformes O.



Pleuronectiformes O.



Lophiiformes O.

e.a.

AKANTOPTERIGIOAK

Perciformes O.



Gasterosteiformes O.



Mugiliformes O.


SARCOPTERYGII subklasea

Sarkopterigioak > hegats txortendun muskulutsudun osteiktiekak

hegats kaudal difizerkoa

Oso ugari Devoniarrean → gaur 8 sp besterik ez

Birikak → faringearen ebaginazioak: tetrapodoen zirkulazio bikoitza



Anfibioen jatorria txortendun hegatsetakoa arrainetan, hegatsak barne-eskeleto osea dute.

LEHARRAREN KONKISTA


TETRAPODOEN SORRERA

Lehorrean ibiltzeko soinadar pareak


Hezurrezko eskeletoa eta muskulatura propioa garatuak

Atzeko hankek egitura sendoa > lokomozioaren euskarri nagusi > gerri pelbiko ahaltzua (iliona, iskiona eta pubisa) + orno sakralak

Aurreko soinadarrak jatorriz ahulagoak > gerri eskapularra muskuluz eutsia




Gerri pelbiko



- 1 - Sakroa
- 2 - Iliona
- 3 - Iskiona
- 4 - Pubisa
- 5 - Sinfisi pubikoa

Gerri eskapularra




Bizkarrezurra garatua:

Soina eusten duen arkua:

- Apofisiak
- Ornoak espezializatu

Bestalde bizimodu urtarrerako moldapenen inboluzioa:

- Hegats bakoitien eskeletoa
- Operkulu brankiala eta bertako hezur dermikoak
- Arraidura brankialak



1. AMPHIBIA KLASEA


Anfibioak, 5.000 sp

Arnasketa kutaneo + birikak

Ektotermoa



Eskeltoa:

- Saihetsezurrekin edo gabe
- Elementu exoeskeletikorik ez




Anuroak
(Igelak, apoak)

Urodeloak
(Arrabioak, Uhandreak)



Apodoak
(Zeziliak)

Urodela (Caudata) ordena: arrabio eta uhandreak




Gehienak urari oso lotuta:

- Ziklo ez-zuzena da nagusi: larba + metamorfosia = heldua
- Larba urtarra, helduaren antzerkoa baino kanpo-brankiak dituena

Gehienetan barne-ernalketa zakilik ez > korteiu eta akoplamendu eredu bereziak espermatoforoak emearen baitan kokatzeko

Espermatoforoak: esperma-zorroa



Ambystoma tigrinum, Axolotea

➤ Pedomorfosia

Batzuk trogloдитak dira:
Esloveniako *Proteus*,
Texasko *Typhlomolge*...
forma neoteniko troglobio
hertsia.

Proteus anguinus, olm-a,
Esloveniako Postojnako kobetako endemismoa





Anura ordena: igel eta apoak

5250 sp., 33 familatan

Ia mundu osoan, Antartikan izan ezik

Isatsaren murrizpena bertako ornoen fusioa urostiloa

Gerri pelbiar sendoagoa > bizkarrezurrari urostiloan lotzen zaio



Anuroetan ohizkoena ziklo ez-zuzena da = larba urtarra + metamorfosia.
Kanpo ernalketa

Gymnophiona ordena: zeziliak

160 sp.

Apodoak, bermiformeak

Tropikalak

Lurpeko (batzuk urtarrak) karniboroak: zizare, intsektu, igel eta suge txikiak jaten dituzte

Ongi osifikatutako kranioa

Barne ernalketa

Obiparo / obobibiparo

Larba semi-urtarrak edo ziklo zuzen




AMNIOTOAK

Anfibioek:

- Eredu tetrapodoa
- Eskeleto axialaren sendotzea
- Zentzumen-organoak egokitu... baina oskolik gabeko arrautzak + larba urtarrak


ARRAUTZA AMNIOTIKOA = "lehorreko arrautza"

- Mintz enbrionario bereziak > enbrioiak garatuak
- Arrautza kleidoikoa → amak sortua → oskol gogorra
- Korionak gasen elkartrukea
- Alantoideak gasen elkartrukea eta baita hondakin nitrogenatuen gordailu ere
- Bitelo-zorro extraenbrionarioak elikatu
- Amnios eta oskol fibrotsu edo kalkareoak eustea eta ur galerak murriztu



Anfibio-antzeko arbasoetatik sortuak, antrakosauruak, Karbonifero goiztiarrean (360-299 mya) → MONOFILETIKOA

Amniotoen filogenia sinplifikatua




Erradiazio azkarra Permiarraren hasieran; kranioen arabera lerro ebolutiboak bereiztu.

FENESTRA

Kranioko alde tenporalean daude "lehiak", muskuluen txertapenerako

- Anapsidoak (A)
- Sinapsidoak (B)
- Diapsidoak (C, D)



1. SINAPSIDOAK

Fenestra pare bakarra alde postorbitean. Bertatik narrasti ugaztunkarak sortuko ziren: pelikosauruak, terapsidoak, eta ugaztunak.

Heterodontoak

Aurre soin-adarrak sendo eta handiak atzekoen aldean

2. SAUROPSIDA

Homodontoak

Aurre soin-adarrak txikitzeko joera

- **ANAPSIDA** : Kranio anapsidikoa. Mesosauruak eta kelsonioak
- **DIAPSIDA** : Kranio diapsidikoa dute, gutxienez bina leiho. Bi lerro:
 - o Arkosauruak
 - Egungo krokodilo eta hegaztiak
 - Pterosauru eta Dinosauruak
 - o Lepidosauruak
 - Egungo tuatara, musker, suge eta anfibenidoak
 - Plesiosauru, Iktiosauruak

REPTILIA KLASEA

Narrastiena talde PARAFILETIKOA da.

Ad.: hegaztiak eta krokodiloak hurbilago daude elkarrengandik, krokodiloak beste edozein narrasti bizidunengandik baino!

Narrastien ezaugarri orokorrak:

- Egungo formak ektotermikoak (salbuespenak)
- Urikotelikoak.
- Forma dioikoak; barne-ernalketaz ugaltzen dira.
- Arrautz amniotiko eta kleidoikoak > oskola kalkareo edo proteikoz babestuak
- Ziklo zuzena dute → ez dago larba-fase urtarrik.


1. ANAPSIDOAK: KELONIA superordena

Guztira 327 sp.

Erlazio filogenetiko ilunak → kranio anapsidikoa

OSKOLA: saihetsezur eta ornoekin bat eginda

- Bi geruza > kanpoko keratinazkoa + barnekoa hezur dermikoak
- Oinarrizko elementuak > PLAKAK > guztira 60 ale izan daitezke:
 - o **Ezkutu dorsala:** Orno eta saihetsekin fusionatua
 - o **Plastroia (bentrala):** Saihetsezur bentraletatik eratorriak




Obiparoak: guztiek erruak lurperatzeko joera > zaintzarik ez

Kromosoma sexualik ez (Krokodiloetan eta musker batzutan bezala)

Kumeen sexua habian izango den tenperaturaren arabera:

- Txitaldian zehar T^a baxua bada, denak arrak!
- Txitaldian zehar T^a altua bada, denak emeak!

(Ulerpen ebolutibo zaileko fenomeno)



DIAPSIDOAK




LEPIDOSAURUAK:

- Egungo tuatara, musker, suge eta anfibenidoak +
- Plesiosauru, Iktiosauruak

ARKOSAURUAK:

- Egungo krokodilo eta hegaztiak +
- Pterosauru eta Dinosauruak

Garezur zinetikoak



2. LEPIDOSAURIA superordena

6700 sp.

Kranio diapsidikoa

Hezurren hazkuntza mugatua! (dortoka eta krokodiloetan ez bezala)

Bi lerro ebolutibo nagusi:

- Sphenodonta ordena: Tuatarak
- Squamata ordena: Esquamatuak. Musker, suge eta anfisbenidoak

TUATARAK:

Bi sp. Zelanda berrian soilik: *Sphenodon punctatus* eta *Sphenodon guntheri*

Ezaugarri primitiboak:

- Eredu goiztiarreko kranio diapsidiko > bi leiho tenporal + jugalak eta kuadratujugalak bat egiten dute beheko arku zigomatikoan
- Begi parietala

SQUAMATA ordena

- Egun narrastien arteko talde dibertsoena > 9000 sptik gora
- Hiru talde nagusi (subordenak): muskerrak, anfisbenidoak eta sugeak
- Azken biak lehenetik eratorriak (muskerrak parafiletikoak)
- Edonola, 3 taldeek nahikoa ezberdintasun ekologiko eta etologiko
- Azala keratinazko ezkaitez estalia > teilakatuak > "Squamata"
- Ezkaitez osotutako babes epidermiko MUDATU egiten da aldiro > dena batera (sugetan, gekonido batzutan...) edo atalka

- UGALKETA

- o Animalia dioikoak
- o Barne-ernalketa kopulaz
- o HEMIPENEA
- o Espermio iraunkorra
- o Arrautza kleidoikoak > kaltziozko edo proteinazko oskola
- o Zaintza parental gutxi > batzuk (sugeek) erruten zaintza > habiak
- o Obiparok + obobiparok + bibiparok


LACERTILIA subordena: MUSKERRAK

6000 sp.; Musker, sugandila, geko, baranoak

- Eskuamatuen arteko talde primitiboenak + forma modernoagoak
- Talde parafiletikoa > anfishbenido eta sugeak bertatik eratorriak

Ezaugarri bereizgarriak:

- Soinadarrak galtzen direnetan, gerrien arrastoak mantentzen dira
- Tinpanoa + erdi-belarria
- Gehienetan betazal mugikorak
- Azpi-barailak sinfisi zurruna
- Isatsaren autotomia > haustura gune berezia > orno bat



ANPHISBAENIA subordena: ANFISBENIDOAK

Forma tropikal eta subtropikalak: Europan sp bat: *Blanus cinereus*

- Forma industaileak > hainbat moldapen:
- Geh. apodoak > ez denak!
- Soin zilindrikoak, "eraztundunak"

SERPENTES subordena: SUGEAK


3400 sp.

Denak apodoak > ez soin-adarririk ez gerririk

Muskerretatik eboluzionatuak

Arrakasta ebolutiboaren gakoak → presio ebolutibo bi:

- Harrapakaritzaren mekanismoen optimizazioa
- Lokomozio-eredu berezien garapen



Kranio zinetikoa + barailen antolakuntza > harraparitzarako espezializazio bikainak


Behe-baraileko alde biak azal eta muskuluz soilik lotuak

Kranioko hezurak murriztuta + giltzadura malguak >

Mihiztoa > usaimenerako egitura laguntzailea

Airetan astindu, partikula kimikoak hartu, eta Jacobsonen organura bideratu > kimiohartzailea, aho-sabaian kokatua

Hobiska termohartzaileak > IR-hartzaileak > krotalotan + boidotan (konbergentziaz)



ARKOSAURUAK

KROKODILOAK

25 sp. Mundu tropikal eta subtropikalean > aligatore eta kaimanak, krokodiloak, eta gabialak

Hezur dermiko osatutako armadura sendoa

Osteodermoak > hezur dermiko baskularizatuak > defentsa gehigarria + bero-transferentzia > termoerregulazioa

Ernalketa ostean emeak habia egiten du > zuloa lurrean edo material begetalen meta > erruen zaintza + eklosioaren ostean kumeen zaintza hainbat aste edo hilabetez > arkosauru guztien ezaugarria!

Guztiak obiparoak

Sexua ez dago kromosometan, habiko T⁰an baizik: T^a emeak >32°C > arrak


AVES klasea: HEGAZTIAK




10.000 sp baino gehiago → habitat desberdinetan, txoko ekologiko anitz eta arrakasta ebolutibo itzela, gakoak:

- Hegan egiteko ahalmena: Nitxoak zabaldu (trofikoak, migrazioak, mugak gainditu)
- Endotermia > aktibitate metaboliko handia
- Entzefaloaren garapen handia


Hegaztiak terapodoen ondorengoak dira, dinosauru karniboro txikiak (147 mya).

Hegaztiak terapodoen ondorengoak dira– dinosauru karniboro txikiak (147 mya).







Narrastia



Hegaztia




Garezur zinetikoak: Rinkozinesia




- Dioikoak > barne-ernalketa kopulaz > obiparoak beti
- Arrautza kleidoikoa, bitelotan joria
- Enbrioiaren garapena externa > habian
- Etologia konplexua > hautespen sexuala, habiagintza, zaintza parentala, lurraldetasuna...

AIRE ZORROAK




Hegan egitea energetikoki garestia > eskakizun zorrotzak:

- Soin lirain eta maniobrakorra > hainbat egituren sinplifikazioa eta beste batzuen emendatzea > hegarako muskulatura
- Soin-enbor trinko zurruna > pisu gehiena grabitate-zentrotik hurbil
- Muga morfofuntzional gogorak > diseinu aerodinamikoak > hegaztien homogeneitate anatomiko handia



Copyright © The McGraw-Hill Companies, Inc. Permission required for reproduction or display.



4 orden ez hegaleri

23 orden hegaleri:

Zikoniformeak: Zikoinak

Peleaniformeak: Pelekanoak, lertxunak.

Anseriformeak: beltzarga, antzara, ahateak.

Falconiformeak: arrano, zapelatz, belatz

Estrigiformeak: hontzak.

Galliformeak: epertrak, faisanak.


Gruiformeak: kurrilloak

kolumbiformes: usoak.

Psitaziformeak: Kakatuak, loroak.

Paseriformeak: Erroiak eta txoriak.

Hegaztien %60.



MAMMALIA KLASEA

Ugaztunen ezaugarri orokorrak:

- Ileak
- Tegumentu guruintsua
- Esne-guruinak > kumea elikatzeke
- Hortzadura heterodontoa: I, C, PM, M
- Barailen giltzadura eta erdi-belarri bereizgarria
- Zerebroaren garapen handia
- kutxa toraziko berezia: esternoia + diafragma > bentilazioa
- Obiparo (5 sp.) edo bibiparoak (gainontzekoak)
- Endotermia



Cygnognathus

Zinodontoak

Aho-sabai sekundarioa guztiz osotua

Hortzadura heterodontoa

Kutxa kranial eta fenestra handiagoak > muskulu maseteroak txertapen hobea > aparatu murtxikatzaile eraginkorra

Baraileko hezur dentarioa hazi eta postdentarioak murriztu

Soinadarren mugimendu parasagitala > gerrietan moldapenak

Zinodontoen lerroan hiru lorpen, ugaztunen eboluziorako gako:

- Erdi-belarrian hotsen transmisiorako mekanismo berria
- Lokomozioa eta arnasketa uztartzen dituen bentilazio-sistema
- Endotermia


ERDI-BELARRIAREN EBOLUZIOA UGAZTUNETAN

Entzumenarekin zerikusirik ez duten presio selektiboen ondorioz erdi-belarriaren lorpen ez-zuzena

Dentarioa eta bertako prozesu koronoidea hazi egiten dira eta azken honi loturiko muskuluak -masetero eta tenporala- desberdindu

Ondorioa: horzkada boteretsu eta eraginkorragoak

Kuadratu eta artikularraren gaineko presioa jeitsi eta beraz beraien tamaina ere, dentarioaren atzekaldera desplazatuz




ENDOTERMIA

Nola lortu zen?

Ahalmen aerobikoaren eredu:

Zinodontoeke eredu lokomotore etekingarriagoa > aktibitate muskular altuagoa > beroa ekoitzi > endotermia partziala hasieran > gero eta isolatuago > guztiz endotermo



ILEA ETA ILAJEA:


- Ugaztunen ezaugarri bereizgarria > *Pilosa* > 2.ki desagertua
- Keratinazko egitura epidermikoa
- Funtzio asko > jatorriz isolatzaile? > endotermiarako ezinbesteko
- Funtzio berriak > kripsia, babes mekanikoa, komunikazioa...



➤ Ile ezberdinak: ilazkia vs ile latz, zurda eta arantzak, bibrisak.

ESPEZIALIZAZIO TROFIKOA

Hortadura heterodontoa!



UGALKETARAKO BIDE BERRIAK:

- Arrautza kleidoikotik bibiparotasunera
- Esne-guruinak > jaio ostean garapena luzatzea ahalbidetu du
- Ugaztun goiztiarretan lezitotrofia ahulagoa > garapen eskasaz jaio
- Ugaztun eratorrienetan erabateko bibiparotasuna

MONOTREMATUAK
MARTSUPIALIOAK
PLAZENTALIOAK

1. Monotrematuak (5 sp.)


- Ugaztun obiparoak
- Ernalketa obiduktuan > oskola
- Ornitorrinkoak arrautza 2 > habia
- Ekidnek arrautza 1 > martsupioan
- Jaioberriak esneaz hazten dira
- 150 mya agertu
- **Kloaka (monotrema)**; ez dute titibururik (poroak)
- Metabolismo-tasa baxua > biziraupen luzea


2. Martsupialioak (336 sp)

- Lehen fosila 125 mya (Kretazeoa)
- Bibiparoak > enbrioiaren garapena laburtu > monotrematuek baino bitelo gutxiago, baina plazentalioek baino gehiago
- Batzuk plazenta bitelinoa
 - Ernaldi oso laburra:
 - 13 egun oposumetan
- Zenbait aste kanguru handitan > 2-3 cm.ko kumea jaio
- Jaioberria **martsupiora** narras > esneaz osatzen du garapena
- Kloaka, baina ugal-hodi diferentziatua
- Australia, Tasmania, Papua-Ginea Berria, Amerika, Sulawesi

3. Plazentalioak > Euterioak



- Bibiparotasun eta matrotrofiarako erabateko espezializazioa
- Plazenta alantogeno edo korioalantoikoa






Konbergentzia ebolutiboa

Parallel evolution of marsupial and placental mammals





Muturluzea: *Galemys pyrenaicus*



Triku arrunta: *Erinaceus europaeus*

Insectivora ordena

Trikuak, satitsuak, satorrak, muturluzea (16 spp. Penintsulan)





Ur-saguzarra: *Myotis daubentoni*

Quiroptera ordena

Saguzarrak. 27 spp Penintsulan



Primates ordena

2 spp Penintsulan



Cetacea ordena

Izurde, baleak, marzopak. 31 espezie Penintsula eta Kanariaseko itsas-uretan



Carnivora ordena



18 spp (Pen)

- Otsoa
- Hartza
- Fraide foka
- Katajineta
- Katamotza
- Basakatua




Artiodactyla ordena

8 spp. en Penintsulan



Beste espezie batzuk: basurdea, sarrioa, bucardoa (iraungita)
 Arrui: sartua (1970n afrikatik) Murtzia eta kanariasetan. Mufloia: sartua (1954n kortzegatik)

Rodentia ordena



Lagomorfa ordena

Untxia: *Oryctolagus cuniculus*

Mendi erbia: *Lepus castroviejo*

Erbi iberiarra: *Lepus granatensis*

Erbi europearra: *Lepus europaeus*